



## Azaroak zubia Sagardoetxean: Sagar dastaketa eta sagar muztioaren elaborazioa.

Azaroaren 1-4a bitartean, **Sagardoetxeak, Euskal Sagardoaren Museoak** sagar barietate ezberdinen dastaketa eta sagar muztioaren elaborazioan parte-hartzeko aukera eskainiko die bisitari guztiei.

Sagar muztioa **prozesu tradizionalari** jarraituz egingo da: lehenbizi kizkiarekin sagarrak lurretik jasotzen dira. Sagarrak bildutakoan, sagarrak pisoeikin zanpatzen dira gero prentsatik pasa eta zukua atera ostean, ekoizturiko muztioa dastatzeko.

### Ordutegiak:

- Azaroak 1 eta 4: 11:00-13:30.
- Azaroak 2 eta 3: 11:00-13:30 eta 16:00-19:30.

### Tarifak:

- Helduak: Banakakoak: 4€ pertsonako; Taldeak: 3,50€ pertsonako.
- Haurrak: 11-18 urte: 2€ pertsonako; 10 urtetik behera: dohain.



## Bilatu zure sagardotegia eta gozatu esperientzia paregabe hau.

**Sagardotegira** joatea bisitarien jakinmina pizten duen jarduera kulturala eta gastronomikoa da, baina berezko portaera arauak dauzka. Arau horiek usadioa mantentzeaz gain, sagardotegietako **esperientzia paregabea** bilakatzen dute. Sagardotegiko menua honakoa da: bakailao tortilla, bakailao frititua piper berdeekin, txuleta, inbixurrak gazta eta irasagarrarekin eta sagardoa txotx eran.

**Bilatu zure sagardotegia [www.txotx.info](http://www.txotx.info) orrialdean eta gozatu Sagardoaren Lurraldeaz.**



**SAGARDOAREN  
LURRALDEA**  
el territorio de la sidra

Kale Nagusia 48 - 20115 Astigarraga  
t: 00 34 943 550 575  
f: 00 34 943 331 311  
[info@sagardoarenlurraldea.com](mailto:info@sagardoarenlurraldea.com)  
[www.sagardoarenlurraldea.com](http://www.sagardoarenlurraldea.com)  
facebook | twitter